

## **Irizarrek bi Irizar i2e autobus elektriko jarriko ditu zirkulazioan Londresen**

**Irizarrek hitzarmena sinatu du Go-Ahead London-ekin, Londresko autobus operadore handienarekin. Hitzarmenaren ondorioz bi Irizar i2e autobus elektriko egingo ditu harentzat eta uztail bukaeran jarriko ditu zirkulazioan Londresen.**

*Ormaiztegin, 2015eko ekainaren 9an*

Bi Irizar i2e autobus hauek, Irizar Taldeko teknologiarekin fabrikatutakoak oso-osorik, Europako beste hiri batzuetan 2014an entregatutakoei gehituko zaizkie. Autobus elektrikoak zirkulazio handiko bi lineatan ibiliko dira. Waterloo Station eta Victoria Station lotzen dituen 507 linean eta Waterloo geltokia London Bridge geltokiarekin lotzen duen 521 linean.

Mike Weston TfL (Transport for London) autobus zerbitzuko zuzendariak esan zuen: *Londres beti egon da abangoardian teknologia ekologikoak bereganatu eta probatzeko orduan. Gure flotan autobus elektriko kopurua hazi egin da eta ikasten ari gara gure zerbitzua zertan hobe dezaketen eta gure bezeroei zer onura ekar diezaioketen.*

Richard Harrington, Go-Ahead London-eko ingeniari zuzendariak esan zuen: *Londresko autobusak ingurumenarekin munduko flota errespetuzkoena bihurtzeko bidean daude. Lehenengoak izan ginen hiriburuan guztiz elektrikoak diren ibilgailuak martxan jartzen eta 18 hilabeteko zerbitzu fidagarriak frogatzen du energia mota hau irtenbide bideragarri adela. Irizarri ongietorria egiten diogu merkatu honetara eta haiekin lan egiteko irrikatan gaude londrestar guztien onerako.*

Urrats horrekin Irizarrek erakutsi du ez bakarrik herrialde horietako merkatu, operadore eta araudietara egokitzeko gaitasun oso duela, baina, gainera, hiri mugikortasunean lider gisa posizionatzeko asmoa agertu du. Hirietako ingurumenaren iraunkortasun eta hobekuntzaren aldeko apustu argia da.

*Hau pauso garrantzitsua da Irizarrentzat, Go-Aheaden aurreikuspenak eta Erresuma Batuko araudia beteko duten produktua eta zerbitzua garatzen laguntzen baitigu. Gainera, Irizarren produktu guztien segurtasuna, fidagarritasuna eta erosotasuna eskaintzea ahalbidetzen digu' esan zuen Hector Olabegogeoaskoetxeak, Irizarko Elektromugikortasun Arduradunak.*

12m-ko autobusak dira eta ezaugarri nagusienak zoru baxu jarraitua eta bi ate bikoitz dira, nagusia arrapala elektrikoarekin. Motor elektrikoak 180kW-ko potentzia du eta 282kWh-ko energia du biltegitratuta. Beraz, Londresko zirkulazio baldintzetan 160 eta 180km artean egingo dituela aurreikusten da. Berrikuntza gisa aipa ditzakegu gidariaren generako hotz-bero unitate bat eta bandalismoaren aurkako itxiera osoa.



Kasu honetan Irizarrek autobus eta autokar fabrikatzaile gisa duen esperientzia handia baliatu du TfLren eta Go Ahead bezeroaren baldintza plegu zorrotzak betetzeko. Horrela, barruko antolamendua oso zabala da, 26 eserlekurekin eta MUP 1entzat plazarekin eta guztira 60 pertsonarentzako edukierarekin. Ibilgailuek Londresko estandar guztiak beteko dituzte floten kudeaketarako eta telemetriako sistema ontziratuetan.

Irizar i2e-ak Irizarren adarra den Irizar UK-k saldutako lehen autobusak dira, Irizarren autobus gamaren UK-ko hornitzaile bakar gisa ezaguna dena. Steve O'Neill zuzendariak esan zuen: "Gure autobus proiektuko zuzendari Jhon Horn-ek Ukin autobusak saltzen duen esperientzia zabala ekarri du Irizarreko lantaldera eta esperientzia horrek bermatzen du ibilgailu horiek egokiak direla Londresko ingurumenerakoeta ziur gaude arrakasta horrek European zehar ere jarraituko duela".

"Eta are gehiago, espero dugu Erresuma Batuan i2e salmenta asko handitzea, lekuan lekuko agintari askok erakutsi baitute interesa hirietan eta metropoli eremuetan igorpenik gabeko autobusak martxan jartzeko".

Go Ahead London hiriburuko autobus konpainiarik handiena da. 17 tokitan 7.000 pertsonak lan egiten dute, batez ere Londres hego, ipar eta ekialdean. Konpainiak 2.300 ibilgailu inguru ditu, tartean Londresko lehen ibilgailu erabat elektrikoak eta 110 Routemaster berri inguru.

Londresko lehen autobus elektrikoak martxan jartzeaz gain 2009tik enpresa ingeniari-tza erabat elektrikoa duten bi ibilgailu laguntzailerekin ere aritu da lanean.



## Irizar Taldea

Irizar enpresa talde bat da, autobusak eta autokarrak diseinatzen liderra eta erreferentzia eztabidaezina elektronikan, komunikazioetan (ITS sistemak), makina birakari eta osagaietan eta tren sektorerako ekipamenduetan.

2.600 pertsonak osatuta, Irizar Taldeak Munduan banatuta dauden bost autokar eta autobus lantegitan garatzen du jarduera (Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko eta Hegoafrika), eta beste bost konpainia ere badituena, bere dibertsifikazio industrialaren fruitu gisa, baita I+G Zentro bat ere, epe luzera begira dagoena, ikerketa aplikatuaren prozesuan eta produktu eta sistema propioen garapenean.

500 milio euro baino gehiagoko fakturazioarekin talde sendoa gara, bost kontinenteetako 90 herrialde baino gehiagotan presentzia komertziala duena.

Egoitza nagusia Ormaiztegin dago eta han dago Creatio ere, Irizar taldearen Ikerketa eta Garapenerako Zentroa.

1889an sortua, 125 urte baino gehiagorekin eta noiz baino sendo eta gazteago, Irizar gaur egun Talde indartsua da, geografikoki dibertsifikatua eta industrialki etengabeko hazkundea duena; markaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren alde irmo egiten duena, eta produktu propioen alde, bai autokar eta autobus elektrikoetan, bai presentzia duen sektoreetako gainerako produktuetan.

## Martxan dabiltzan ibilgailuen emaitzak

### Donostian dabilen autobusa (dbus)

2014ko uztailaren 23tik zerbitzua ematen Donostian

- 12 metroko linea guztietan dabil
- Egindako kilometroak: 20.000 baino gehiago
- Egunean ibiltzen den orduak 14h eta 16h artean

### Bi ibilgailu Bartzelonan ZeEus proiektu europarraren barruan (TMB)

Abuztuaren 18tik zerbitzua ematen Bartzelona hirian

- 20. Linean dabil
- Egindako kilometroak: 20.000 baino gehiago
- Egunean ibiltzen den orduak 16 ordu inguru



## **Madriko EMTn egindako probak**

Astebeteko probaldia Madrilgo EMTren kotxetegian

- 880 metroko ibilbidea tartean lau geldialdirekin atek ireki eta itxiz
- Egindako kilometroak: 150km 12h-tan
- Baliokidea: 180km 14h-tan

## **Probak Marseillako RMTn**

2014ko azaroaren 24tik 2015eko urtarrilaren 22ra egindako probak

- 83. Linean dabil
- Egindako kilometroak: 4000km
- Egunean ibiltzen den orduak 12 eta 14h artean

## **Bartzelonako AMBk egindako probak**

Baixbusek egindako probak martxoaren 10etik 22ra

- L46, L52, L96 lineatan dabil
- Egindako kilometroak: 205km
- Egunean ibiltzen den orduak 12h

Tugsal-ek egindako probak martxoaren 25etik apirilaren 8ra

- L31, L11, L26 lineatan dabil
- Egindako kilometroak: 147km
- Egunean ibiltzen den orduak 11h eta 25m